



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokiak beste bi kontzertu gehitu dizkio programazioari: El Arrebato eta Orquesta Mondragón

- 2026ko apirilaren 22an, El Arrebatok zuzenean aurkeztuko du bere hurrengo albuma izango dena, *El viaje inesperado* izeneko, zeinetan bere ukitua mantentzen duen eta erritmo berriak eranstean dituen.
- Apirilaren 26an, Orquesta Mondragónek eszenatokietan 50 urtez egon dela ospatuko du, sorpresaz eta omenaldiz jositako kontzertu batean, non hainbat belaunaldi markatu dituzten abestiak entzun ahal izango baititugu.

Bilbo, 2025eko irailaren 16a – Arriaga Antzokiak 2026an egingo diren eta denboraldiko programazioari erantsiko dizkion bi kontzerturen berri eman nahi du. Ordena kronologikoari jarraituz, lehena **El Arrebatoren**a izango da. Javier Labandónek bi hamarkadatik gorako ibilbide musikala egin du jada izen artistiko horrekin, eta pop eta runba proposamen benetan ezaguterraz bat eskaini du. El Arrebato bere hurrengo diskoa ateratzeko azken lanak egiten ari da: *El viaje inesperado* izango du izena eta hura aurkezteko biraren baitan etorriko da Arriaga Antzokira, apirilaren 22an. Artista sevillarrak bere esentziari eutsi dio disko berrian, zeinetan erritmo musikal berriak sartu baititu.

Lau egun geroago, apirilaren 26an, Orquesta Mondragónen txanda izango da. Javier Gurruchaga buru duen taldeak mugari historiko bat beteko du: 50 urte eszenatokietan. Abentura musikalez, rockez, bluesez, popez eta umore lotsagabez beteriko mende erdi bat. Euren ibilbidea ospatzeko, taldea ikuskizun berezi batekin itzuliko da, zeina, batez ere urtebetetze festa handi bat baita. Publikoak Orquesta Mondragónen historian zehar bidaiatuko du, Donostian, Bilbon eta Madrilen eman zituen lehen kontzertuetatik hasi eta erreferentzia sortzaile eta apurtzaile bihurtu zen arte. Eszenatoki gainean, bide horretan aztarna utzi duten musikari, kolaboratzaile eta lagunei egingo zaie omenaldia: taldearen iruditeriari forma eman zioten artista eta ilustratzaileekin hasi eta disko, agertoki eta proiektu ahaztezinak partekatu zituzten bidelagunetaraino. Ez dira faltako belaunaldiak markatu zituzten abestiak, kontzertu enblematikoen oroitzapenak eta Orquesta Mondragónek beti ezaugarri izan dituen sorpresak.

Bi kontzertuetarako sarrerak bihurtik aurrera (irailaren 17a, asteazkena) egongo dira salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian. Prezioak 35 eta 69 euro artekoak izango dira El Arrebatoren kontzerturako, eta 24 eta 48 artekoak Orquesta Mondragónen kontzerturako.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus